

## 20/09 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, lehendakaria  
Josean Bueno  
Ainara Ibáñez  
Ana Marta Iriarte  
Mari Tere Ojanguren  
Iñaki Orbe  
Ismael Redondo  
Jone Unzueta  
Eva Blanco, Idazkari Teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2020ko irailaren 23ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta HHEko ikastetxe publikoetan 2020-21 ikasturterako maisu-maistren LPZk arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.**

### I. AURREKARIAK

EAEko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legeak lanpostuen zerrendak arautzen ditu II. tituluaren I. kapituluan, irakaskuntzako funtzio publikoaren egitura eta antolaketari buruzkoan; zerrenda horien oinarritzko printzipioak adierazten ditu, baita zerrendak egiteko jarraitu beharreko prozedurak ere.

Parametro hauek identifikatzen dituzte dekretu honi erantsitako zerrendetan azaltzen diren lanpostuak: espezialitatea, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasuna. Hizkuntza-eskakizunak hizkuntza-ereduen arabera zehazten dira, martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuan (apirilaren 2ko EHAA) ezarritako proportziak beteta; dekretu hori urtarrilaren 18ko 6/2000 Dekretuak aldatu zuen (urtarrilaren 20ko EHAA), eta arautu egin zuen nola dekretu hori irakasleen lanpostuei. Helduen ikastetxeetako lanpostuei hizkuntza-eskakizunak jartzeko, uztailaren 23ko 182/2002 Dekretuan ezarritako irizpideak jarraitu dira.

### II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 3 artikulua, 9 xedapen gehigarri, bi azkenak eta 6 eranskin ditu.

1. artikulua I.etik VI.era bitarteko eranskinetan jasotako lanpostu zerrendak (LPZ) onartzen ditu.

2. artikulua irakasle ibiltariei buruzkoa da eta 3. artikulua lanpostu zerrenden hornikuntza-sistema zein izango den ezartzen du.

Lehenengotik zazpigarrenerako xedapen gehigarriek soldaten osagarri orokorrak eta kargu eta erantzukizunen arabera esleitutakoak jasotzen dituzte. Zortzigarren xedapen gehigarriak Lehen Hezkuntzako aholkulari-postua eskuratzeko baldintzak jasotzen ditu. Bederatzigarren xedapen gehigarriak zehazten du postu guztietarako behar dela sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren bategatik epai irmoz kondenatuta ez egotearen ziurtagiria, Adin txikikoen Babeserako Legearekin bat etorritik.

Azken lehen xedapena errekurtsioak jartzeari buruzkoa da, eta bigarrenak esaten du noiz sartuko den Dekretua indarrean.

## II. PLANTILLEN ANALISIA

Dekretu proiektu honetan lantzen diren Maisu-maistren Kidegoko lanpostu zerrendek (LPZ) eragina dute Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, Helduen Hezkuntzako (HHE) ikastetxeetan, Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuan eta Lurralde Ordezkaritzetan.

Lanpostu Zerrenda horietako plaza kopurua aurreko ikasturtekoaren berdina izan da: 10.125 lanpostu. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan 204 plaza gutxiago daude, Lurralde Ordezkaritzetan 213 lanpostu gehiago daude eta HHE ikastetxeetan 9 gutxiago.

Erljio katolikoko maisu-maistren plaza kopurua (149) eta erlijio islamikoko plaza kopurua (4) berdin mantentzen dira. Plaza horiek ez dira plaza osoak, langile osagarrien taulan ageri den bezala.

Poltsa-Ordezkaritza ikastetxeetako lanpostuak ibiltariak dira edo hainbat ikastetxeren artean partekatutak. Lanpostu horietako maisu-maistrak ez daude ikastetxe zehatz bati atxikita, baizik eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza bakoitzari atxikitako plazak dira, eta ordezkari horiek esleitzen dizkiete beren zereginak eta ikastetxeak. Horien artean daude etorri berria diren pertsonekin lan egiten duten irakasleak (hizkuntza indargarriko irakasleak, kulturartekotasunekoak) proiektuak garatzeko irakasleak (Eleaniztasuna), eta logopedak.

### LPZ organikoetako maisu-maistren plazak, jomuga motaren arabera. 2019-20 eta 2020-21

<i>Jomugak</i>	2019-20	2020-21	<i>Δ Azken ikasturtea</i>
Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako postuak	8.948	8.744	-204
Erljio katolikoko irakasle postuak	149	149	0
Erljio islamikoko irakasle postuak	4	4	0
HHE ikastetxeetako postuak	363	354	-9
UHEI	9	9	0
Lurralde Ordezkaritzetako postuak	652	865	213
<b>LPZ organikoa guztira</b>	<b>10.125</b>	<b>10.125</b>	<b>0</b>

Espezialitateei dagokienez, Haur Hezkuntzakoak (-90) murriztu dira gehien, Lehen Hezkuntzan (-55), Aholkulariak (-24) Ingelesa(-13) eta Musika (-12); bakarrik, ugaritu egin dira Pedagogia Terapeutikoan (7).

**Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako maisu-maistren kidegoko LPZ organikoko espezialitateak. 2019-20 eta 2020-21 ikasturteak.**

Jomugak	2019-20	2020-21	Δ Azken ikasturtea
Haur Hezkuntza	2.450	2.360	-90
Lehen Hezkuntza	3.515	3.460	-55
Euskara	15	14	-1
Ingelesa	596	583	-13
Gorputz Hezkuntza	362	355	-7
Musika	296	284	-12
Aholkularia	297	273	-24
Pedagogia Terapeutikoa (PTE)	665	672	7
Entzumena eta Lengoaia (ALE)	160	159	-1
Ikastetxeak Konfiguratu Beharrekoak (CPC)	592	584	-8
<b>LPZ organikoa guztira</b>	<b>8.948</b>	<b>8.744</b>	<b>-204</b>

“Ikastetxeak konfiguratu beharreko postu” gisa tipifikatutako en edukiak ikasturtez ikasturte aldatu daitezke ikastetxe bakoitzeko premien arabera, betiere Administrazioak behar bezala justifikatzen baditu. Izaera aldakor horren ondorioz, ezin dira behin betiko hornitu lehiaketa arrunt baten bidez.

Plantilla organikoen *euskalduntzeari* bagagozkio, HE2 duen irakasle portzentajea mantentzen da, %98,8koa da Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan. HHEko irakasleen artean azken ikasturtean 4 puntu hazkundera du. UHEIko lanpostu guztiek, salbu batek, dute esleituta HE2 eskakizuna (%90), eta erlijio katolikoko irakasleen lanpostuetan %96k eta ordezkarietzako postuetan %99,7k. Erlijio islamikaren kasuan %50k esleituta dute HE2.

**Maisu-maistren kidegoko plantilla organikoetan HE2 esleituta duten plazen portzentajea, ikastetxe edo jomuga motaren arabera. 2019-20 eta 2020-21 ikasturteak.**

		2019-20	2020-21	Azken ikasturtea
Haur eta Lehen Hezkuntza	2HErekin	8.826	8.639	-187
	Guztira	8.948	8.744	-204
	2HE	98,6%	98,8%	0,2
HHE	2HErekin	275	283	8
	Guztira	363	354	-9
	2HE	75,8	79,9	4,1

Lurralde Ordezkaritzetan kokatutako 865 plazak ikastetxeetako *plantilla osagarriko* 1.025 postuen barruan daude. Izan ere, plaza horiek berez ez daude ikastetxe zehatz bati atxikita modu iraunkorrean.

Normalean plazaren beraren izaeratik gertatzen da hori, halako plazak ikasleen ezaugarrien arabera egoten baitira eta, beraz, plaza aldakorrak dira. Bigarren arrazoi bat ere bada, plazen partzelazioa hain zuzen. Sarritan plaza erdi bat edo plazaren herena esleitzen zaio ikastetxe bati. Ikasturte honetan, 1. taldean 95,5 lanpostu biltzen dira “Berrikuntza proiektuak” kontzeptuaren pean, lehen 2.taldean sartzen zirenak.

Erljioko plazen kasuan, oro har osatu gabeko plazak direnez, ez dira sartzen *plantilla osagarriaren* batuketan, ez eta ratioen kalkuluan.

#### Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako *plantilla osagarriko* plazen banakatzea 2019-20 eta 2020-21 ikasturteetan

	<i>Plaza mota</i>	2019-20	2020-21	$\Delta$ Azken ikasturtea
<b>1. taldea</b>	Eskolaz kanpokoak	48	36	-12
	Jangela - ikastetxea	234	230	-4
	Hizkuntza indargarrirako irakasleak (HII)	159	174	15
	Berrikuntza proiektuak *	14,5	95,5	81
	PT	68	68	0
	IBH	95	113,5	19
<b>2. taldea</b>	Beste batzuk	355	308	-47
<b>Plantilla osagarria guztira</b>		<b>974</b>	<b>1.025</b>	<b>51</b>
	Erljio katolikoa	72	67	-5

\*joan den ikasturtean Bikaintasuna eta Hezkidetza kontzeptuak jasotzen ziren

Ondorioz, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako funtzionamendu *plantilla* osoak 1.025 maisu-maistra barne hartzen ditu, aurreko ikasturtean baino 41 gehiago.

#### Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako funtzionamendu *plantillen* bilakaera. 2019-20 eta 2020-21 ikasturteak.

	2018-19	2019-20	$\Delta$ Azken ikasturtea
LPZ organikoa	8.881	8.948	67
Plantilla osagarria	1.051	1.025	-26
<b>Funtzionamenduko LPZ</b>	<b>9.932</b>	<b>9.973</b>	<b>41</b>

Alderatzen baditugu *plantilla* eta ikastetxe horietan matrikulatu den ikasle kopuruaren hazkundera (aurreko ikasturtean baino 2.468 gutxiago), ondorioztatu

daiteke ikasgelako irakasle ratioa (1,78), ia berdin mantentzen direla eta ikasgelako irakasle ratioa (18,46) eta irakasleko ikasle ratioa (10,8) zertxobait jaitsi direla.

**Ikasle, irakasle eta unitateen eta horiei dagozkien ratioen bilakaera Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan 2019-20 eta 2020- 21 ikasturteetan.**

		2019-20	2020-21	Azken ikasturtea	
Unitateak edo ikasgelak (aurre-matrikula)	Haur Hezkuntza, 2 urte	614	591	-23	-3,7%
	Haur Hezkuntza, 2. zikloa	1.599	1.568	-31	-1,9%
	Lehen Hezkuntza	3.404	3.396	-8	-0,2%
	Hezkuntza Bereziko ikasgela egonkorak	38	40	2	5,3%
	Unitateak guztira	<b>5.655</b>	<b>5.595</b>	<b>-60</b>	<b>-1,1%</b>
Ikasleak (aurre-matrikula)	Haur Hezkuntza, 2 urte	7.896	7.546	-350	-4,4%
	Haur Hezkuntza, 2. zikloa	29.795	28.787	-1.008	-3,4%
	Lehen Hezkuntza	67.883	66.756	-1.127	-1,7%
	H. Berezikoko gela egonkorak	162	179	17	10,5%
	Ikasleak guztira	<b>105.736</b>	<b>103.268</b>	<b>-2.468</b>	<b>-2,3%</b>
Irakasleak: funtzionamendu plantilla		9.932	9.973	41,00	
Irakasle / ikasgela ratioa		1,75	1,78	0,03	
Ikasle / ikasgela ratioa (1)		18,69	18,46	-0,23	
Ikasle / irakasle ratioa		10,65	10,35	-0,30	

(1) Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasgelako ikasle ratioa gehienez 23,7koa da, eta ratio hori Lehen Hezkuntzako ratio handienaren (25), Haur Hezkuntzako 2. zikloko ratioaren (23) eta 2 urteko mailaren (18) arteko batez bestekoaren emaitza da.

### III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako plantilla organikoak 204 plaza gutxiago ditu, eta HHEko maisu-maistrak 9. Beste aldetik, plantilla osagarria 51 plaza gehiago ditu.

Kontuan hartuta, alde batetik, 60 gela eta 2.460 ikasle gutxiago daudela eta, bestetik, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako funtzionamendu errealeko plantillak, ratioak zertxobait hobetzen ari direla ikusten dugu.

Aurreko ikasturteko irizpenean positibotzat jo genuen HBiren (hezkuntza-beharren indizea) sormena, eta, horregatik, egokitzen jotzen dugu 19 plaza gehiago izatea.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2020ko irailaren 23a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU JAUNA